



LURJABE BATZUK EZ DITUZTE AKTAK SINATU

Legorreta eta Tolosa arteko AHTren zatiaren lehen harria jarri du Patxi Lopez lehendakariak 2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2009-12-17**

VII. URTEA 1.584. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Tolosako kirolari onenaren sarirako hautagai guztiak Leidor antzokiko eszenatokian. E. EZBEZA

JOSEBA ROJOK JASO DU URTEKO KIROLARI ONENAREN SARIA

TOLOSA Bigarren postuan nesken arrauñ taldea eta Lara Arruabarrena geratu dira, puntu kopuru bera eskuratuta 2

Etzi, Euskal Herriko Wushu-Kung Fu- Taichi Txapelketa

LEITZA Emakumezkoak eta gizonezkoak batera lehiatuko dira 11:00etatik 13:00etara 7

Tolosaldetik gutxienez bi autobus joango dira Bilboko manifestaziora

'EGUNKARIA AUZIA' Txartelak salgai daude oraindik 10 euroren truke 4



Hautetsi independentistak Ibarako planoaren aurrean. N. LATABURU

Hiri Antolamendu planaren eztabaida egiteko eskatu dute

IBARRA Hautetsi independentistentzat herritarren iritzia entzutea ezinbestekoa da 6

Iñaki Salvador Triok Mikel Laboa omenduko du

TOLOSA 'Lilurarik ez' lana eskainiko du hirukoteak Topic-en 20:30etik aurrera 3



ONDDOROCK musika
jaialdirako
sarrera pareta

Abenduak 19 • Larunbata
22:00etan
Villabonako pilotalekuan



sarrerak

Tolosako Orfeoia
Gabonetako kontzertua

Abenduak 23 • Asteazkena
20:30ean
Leidor aretoan



TXOKOA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira

Laburrak

Laskoraingo Urteko Batzar Orokorra izango da gaur

HEZKUNTZA Laskorain ikastolako Urteko Ohiko Batzarra egingo da gaur, ireki berri duten Euskal Herria plazako Topic-eko areto nagusian. Bilkura 19:00etan izango da. Laskorainen etorkizunari begira erabaki estrategikoak hartu behar dituzte batzar honetan, azpiegituren, ekonomiaren eta eraketaren inguruan.

Belate pasealekua irekita dago jada ibilgailuentzat

AZPIEGITURAK Kolektorearen lanek aurrera jarraitzen dute, baina gero eta gutxiago geratzen da obrak amaitzeko. Honen adibide da hemendik aurrera Belate pasealekua ibilgailuentzat berriro ere irekita egongo dela. Azken egunean, inguru horretako lanak aurreratzeko, itxita egongo da, baina jada zabaldu dute.

Presa puzgarriaren frogak egingo dituzte gaur

AZPIEGITURAK Oria ibaiako presa puzgarriko obrak amaitzeaz dira. Hori dela eta, gaur eta bihar probak egingo dituzte, hau da, puztu eta hustu egingo dute. Ondorioz, ur emaria aldatu egingo da. Arrazoi honengatik, gaurko 08:00etatik biharko 13:00etara arte, debekatuta dago egun guztian zehar errekarra jaistea.

Joseba Rojo eskiatzailea da urteko kirolari onena



Atzo iluntzean Leidor antzokian ospatu zen Kirol Galako saridun guztiak. E. EZEIZA

Kirolak » Bigarren saria nesken arraun taldearentzat eta Lara Arruabarrenarentzat izan zen.

ERREDAKZIOA

Kirolari eta kirol taldeen ustetan, Joseba Rojo eskiatzailea da 2009ko Tolosako kirolari onena. Urte bikaina izan da gaztearentzat eta sari ugari lortu ditu. Esanguratsuen, agian, Herrialde Katalanetako Puigcerdan jokaturako Iraupen Eskuko Espainiako Txapelketako garaipena izan zen. Senior kategorian, urrezko eta zilarrezko domina bana eta brontzezko 3 domina lortu zituen martxoan jokaturako probetan. Atzo ezin izan

zuen saria berak jaso, Tolosatik kanpo baitago. Bere ordez, gurasoek hartu zuten saria.

Bigarren postua, birentzat izan zen, puntu kopuru bera jaso baitute nesken arraun taldekoek eta Lara Arruabarrena tenis jokalaririk. Lehendabizikoei, Euskadiko txapelketa irabazi zuten bateletan nahiz traineran. Arruabarrena berri, junior mailan, bigarren geratu zen Espainiako tenis txapelketan.

Aipatzekoak dira hala ere, hautagai guztiak, urtean zehar egindako lanaren ondorioz aukeratuak izan baitira sari honetarako: Tolosa CF atletismo taldea, Leire Muñozgorri igerilaria, Mara Varela, urpeko igerilaria, Jaione Tejedor gimnasta, Ainhoa Pagola txirrindularia, eta Alberto Vaquero triatleta.

Etorkizuneko promesak direnak ere sarituak izan ziren atzo Leidor antzokian ospatutako gala jendetsuan.

» SARITUAK

Kirolari edo kirol talde onena

- 1. Joseba Rojo.** Iraupen eskiatzailea.
- 2. Lara Arruabarrena.** Tenis jokalaria.
- 2. Nesken arraun taldea.** Arraunlariak.

Etorkizunekoak

- **Marta Alonso.** Igeriketa.
- **Ane Elizegi.** Atletismoa.
- **Lander Gil.** Atletismoa.
- **Iker Epelde.** Atletismoa.
- **Irene Usabiaga.** Txirrindularitza.
- **Dorleta Eskamendi.** Txirrindularitza.
- **Imanol Rojo.** Iraupen eskia.
- **Xabier Saizar.** Iraupen eskia.
- **Maddi Amiano.** Judoa.
- **Jokin Zubizarreta.** Urpeko igeriketa.
- **Naroa Urkola.** Gimnastika erritmikoa.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak, eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Telefono zenbakiak: 638 94 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Belen).

Beti nahi
jateko

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Garaian
garaiako janariak
Arraikiatan berezia



Protestak egiten aritu ziren zenbait lagun, atzo goizean. E. EZEIZA

Desjabetze aktak ez sinatzea erabaki dute zenbait lurjabek

Azpiegiturak » Protestak egin zituzten zenbait lagunek atzo goiz guztian zehar, «lurrak desjabetzea lapurtzea» dela salatuz.

Hotzari aurre eginez, eta pankarta eskuan hartuta, AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, zenbait lagun protesta egiten izan ziren udaletxearen aurrean goiz guztian zehar. Bertan, beraien desadostasuna agertu zuten eta era berean, desjabetzea «lurrak lapurtzea» dela salatu zuten.

ERREDAKZIOA

AHTren inguruko lurren desjabetze aktak sinaketa prozesuak aurrera jarraitzen du.

Atzo goizean, Espainiako Sustapen Ministerioi ordezkaririk Tolosako udaletxera joan ziren prozedurarekin aurrera jarraitzeko. Aldaba Txiki, Ugane, San Esteban eta Montezkue auzoetako lurjabek zeuden deituta sinatzera joateko. Hauetako askok uko egin zioten, eta ez zuten onartu desjabetzearen akta.

Legorreta eta Tolosa arteko lehen harria

Bestalde, Itsasondo eta Tolosa lotuko dituen AHTren lanak hasi zituzten atzo goizean, lehen harria jarrita. Patxi Lopez Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakaria eta Iñaki Arriola Garraio sailburua izan ziren ekitaldian. Denera zazpi kilometroko tartea dago bi herrien artean. Legorreta, Ikaztegieta eta Alegiatik igarota.



«Nolako Amarotz nahi dugu?»

GIZARTEA » Herenegun aurkeztu zuten, Amarozko Auzoetxe elkartearen, auzo horretan bertan egin nahi duten herri kontsulta. Galdeketa horrekin auzotarrek Amarotzek zer nolako azpiegiturak eduki beharko lituzkeen azaldu ahal izango dute. Zer nolako herria eta zer nolako Tolosa behar duten etorkizunera begira ere argitu ahal izango dute. Kontsulta hori urtarilaren 23an eta 24an izango da. Egitasmo honen abiapuntuetako batzuk dira, Amarotzen izango diren aldaketa handiak. Izan ere, beste 300 etxebizitza berri egitea aurreikusten da. Honek, jendearen gehitzea ekarriko du eta auzotarrek ezinbestekotzat jotzen dute dotazio komunitarioen arloan antolamendu berri bat egitea. HITZA

Bonberenearen urteurrenaren harira, kalejira eta bazkaria egingo dute etzi

ERREDAKZIOA

Bonberenean hamabigarren urteurrena ari dira ospatzen egunotan ekitaldi ugariekin. Etzi, esaterako, jai giroa zabalduko dute Tolosako kaleetan Bonberenea txaranga eta Tolosako erraldoi eta buruhandiekin kalejira egingo baitute. Hori 11:00etan izango da, eta ondoren, bazkarian bilduko dira, 14:00etatik aurrera. Hurrengo egunean, *Batman*, *El caballero oscuro* filma izango da ikusgai Bonbereneako zine-klubean, 17:00etan.

Bestalde, Okupazio Eguna ospatuko dute datorren asteazkenean, hilaren 23an. Txarangarekin aterako dira iluntzean, eta afaria egingo dute gero.

Elkarretaratzea eta itxialdia Aminatou Haidarren egoera salatzeke

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Sahararekin elkarreak Aminatou Haidarren egoera salatzeke protesta ekitaldiak egingo ditu. Bihar elkarretaratzea egingo dute Tolosako Plaza Zaharrean, udaletxearen aurrean, 19:00etan. Horren ostean, itxialdia egingo dute udaletxean bertan, larunbata eguerdian arte. Ondoren, elkarretaratzea egingo dute Triangulon, 12:00etan. Aminatou Haidarren egoera larriaz ohartarazi nahi dituzte tolosarrak protesta ekintza hauekin.

Bestalde, arazoari irtenbidea ematea eskatzen diete Espainiari eta Marokori. Euren ustetan Haidar Sahara itzultzean eta Espainiak duela 34 urte bertan sortutako arazoari konponbidea ematean egongo litzateke irtenbidea. Hori dela eta, sahararrek euren etorkizuna erabaki ahal izan dezaten erreferendumerako eskubidea aldarrikatzen dute eurentzat.

Udalaren aldetik elkartasuna

Era berean, Tolosako Udalak onartu berri duen mozioaren ondorioz, elkartasuna adierazten dio Aminatou Haidari. Halaber, Espainiari arazoari irtenbidea emateko gestioak burutzeko eskatzen dio, eta Marokori bertako errepre-sioarekin amaitzea. Mendebaldeko Saharan NBEk adostutako autodeterminaziorako erreferenduma egitea ere eskatzen du Udalak.

Iñaki Salvador Trioren eskutik, Laboaren omenezko emanaldia

Musika » 'Lilurarik ez' lana eskainiko dute, Topic-en bihar, 20:30etik aurrera; Iñaki Salvador 20 urtez aritu zen Laboarekin lanean.

ERREDAKZIOA

2006ko uztailean entzun ahal izan zen Mikel Laboa azken aldiz kantuan, etabi urte geroago hil zen gaixotasun luze baten ostean. Bere musikak, ordea, bizirik jarraitzen du, eta asko izan dira egundaino euskal kantugintzaren ikur izan denaren omenezko kantaldiak. Hurrengo Tolosako Topic-en izango da bihar, Iñaki Salvador Trio-ren eskutik. *Lilurarik ez* emanaldia eskainiko dute 20:30etik aurrera.

20 urte baino gehiago aritu zen Iñaki Salvador pianista donostiarra Laboaren ondoan lanean. Oraingoan, berak sorturiko hirukotearekin datorrigu. Hasier Oleaga bateria-jotzailearekin, eta Javier Mayor de la Iglesia kontrabaxu-jotzailearekin jazz eta bat-batekotasunean oinarrituriko lana eskainiko dute.

Biharko emanaldiari dagokionez, bi zatitan banatuko dute. Lehengoan, Bertolt Brecht-ek idatzi-



Iñaki Salvador eta Mikel Laboa, 2006ko kontzertuaren entseguan. HITZA

» DATUAK

- **Emanaldia.** Iñaki Salvador Trioren *Lilurarik ez*.
- **Noiz eta non.** Bihar, 20:30ean, Topic-en.
- **Sarrerak.** Topic-en bertan, ikuskizuna baino ordu bate lehenago. 10 euro.

tako testuetan oinarrituta, Mikel Laboak 1969an sortu eta grabatutako lau abestien bertsio berezia eskainiko dute, jazz estiloan: *Munduaren esker ona*, *Gaberako ater-bea*, *Denak ala inor ez* eta *Lilurarik ez*. Bigarrenean, berriz, Laboaren

oinarrizko abestien bertsio berriak joko dituzte: *Txoriak Txori*, *Izarraren hautsa* eta *Baga Biga Higa*, besteak beste.

Mikel Laboa omentzeaz gain, lan honekin «naturaltasunez bere musika birsortzen» saiatzen dela azaltzen du pianista donostiarra. *Lilurarik ez* izenburua «Laboaren bizi filosofia oso ondo biltzen duen poema delako etabera erabidituen identifikatuta sentitzen zelako» hautatu zuen Iñaki Salvadorrek emanaldi honetarako. Hurrengo urtean diskoa kaleratuko du hirukoteak Laboaren abestien bertsioekin osatua.

Akordeoia oinarri hartuta

Musika » Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak Eguberrietako kontzertua eskainiko du etzi, Leidorren, 19:30ean.

ERREDAKZIOA

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren eskutik kontzertu erakargarriaz gozatzeko aukera izango da etzi, Leidor aretoan, 19:30etik aurrera. Bertaratu nahi dutenek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

Urtero eskaintzen duten Eguberrietako kontzertu honetan Isidro Larrañaga Musika Eskolako 80 ikasle inguruk hartuko dute parte. Akordeoia ardatz izango da emanaldian eta batez ere saioaren amaieran, Eguberrietako ohiko abestiak entzungai izango baitira orduan.

Saioaren lehen zatian, baina, akordeoiaz gain, ikasleek musika tresna ugari erabiliko dituzte: trikitixa, gitara, pianoa, bateria eta teklatura, besteak beste. Entzungai izango den musikari dagokionez, bertako nahiz atzerriko kantak eta hainbat estilokoak jorratuko dituzte.



Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra iaizko emanaldian. HITZA

Egitarau anitza

Emanaldiaren amaieran Eguberrietako abestiak entzun ahaliko dira, beraz, Akordeoi Orkestraren eskutik, eta aurretik ondorengo abestiak eskainiko dituzte, beste artean, Isidro Larrañaga Musika Eskolako ikasleek: *Aita San Antonio*, *Gabeko erronda*, *Udazken arratsaldetan*, *Beti alai*, *Saltoka*, *Deck the halls*, *Haurtxo polita*, *Aitortzen hizkuntza zaharra*, *Sobre las olas*, *Irudi Biluztuak*, *Away*, *Smells like teen spirit*, *Nostalgia*, *Pomp and Circumstance*, *Txoria txori*, *Canon*, *Sonata KV 331* eta *Holiday*.

L Laburrak

Mendi irteera eta babarrun jatea igandean Alpinorekin

MENDIA » Mendi irteera antolatuko du Alpino Uzturre mendi elkarteak igande honetarako, hilaren 20rako. Ormaiztegioko plazan hasi eta Azkoitia bukatuko dute txangoa. Izazpe (967 m.) eta Samiño (932 m.) mendiak igoko dituzte. Autobusa Santa Klaratik irtengo da 07:00etan, eta 6 ordu t'erdiko iraupena izango du mendi bueltak. Ondoren babarrun jatea egingo dute Azkoitiko jatetxe batean. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta bazkide ez direnek 13. Izena elkartearen eman ahaliko da, 943 652789 zenbakian edo alpinouzturre@hotmail.com helbidean.

Magia ikuskizuna Zerkasian, etzi

KULTURA » Komertzio Foroak «larunbatetan merkataritza indartu asmoz» antolatutako azken jarduerak izango da etzi arratsaldean Zerkasian. Bi mago ariko dira: Kildam magoa 17:00etatik aurrera, eta 18:30ean Marsel magoak hartuko dio erreleboa. Familia osoari zuzenduriko ikuskizuna eskainiko dute.

Manu Cordoba, Oargiren Mendi Hamabostaldian

MENDIA » Oargi elkartearen Mendi Hamabostaldiaren barruan, Manu Cordobaren *Libre y atado* emanaldia izango da gaur, 19:00etan, Oargi elkartearen bertan. Izotz eskalada eta eskalada klasikoaren inguruan ariko da Cordoba. Fedme alpinista gazteen taldeko kidea da, eta erreferente da izotz eta eskalada klaskoan.


Eskerrak Zuri aipamen berezien banaketa, bihar

GIZARTEA » Galtzaundi Euskara Taldeak bihar banatuko ditu Eskerrak Zuri aipamen bereziak. Tolosaldean hainbat elkarte egiten duten lana jendaurrean eskertzea izaten du helburu ekimen honek. Lau ataletan banatzen dituzte sariak, kirola, kultura, gizatasuna eta ohorezko aipamen berezia, hain zuzen. Ekitaldia bihar izango da, udaletxean, 20:00etan hasita.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosaldetik Bilbora gutxienez bi autobus joango dira etzi

'Egunkaria auzia' »

Kontseiluko zuzendaritza osoak Bilboko manifestaziora joateko deialdia egin du.

ASIER IMAZ

Madriren *Egunkaria*-ren aurkako epaiketak aurrera jarraitzen duen bitartean, fiskalaren isiltasuna lagun, Tolosaldeko eta Leitzaldeko begiradek Bilbo dute jomugan. Etzi, hilaren 19an, *Egunkaria libre!* lelopean manifestazioa egingo da bertan, 17:00etan hasita.

Autobusez joateko aukerak oraindik zabalik jarraitzen du, nahiz eta Tolosaldean jada bi beteak diren. Txartelak ondorengo lekuetan aurkitzen dirasalgai: TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN bulego nagusian, Galtzaundin eta Raku eta Denak Tabernetan. Villabonan Ogi-goxon eta Asteasun Patxinen ere badaude.

Norbanakoen atxikimenduez gain, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, Bai Euskal Herriari ekimenak eta Kontseiluak manifestazioa joateko deialdia egin dute.

«Errepresioaren neurria»

Lehenik eta behin, AAMk elkartasuna adierazi diete Espainiako Auzitegi Nazionalen epaituak izaten ari diren bost euskal herritarrei.

Horrekin batera, «Euskal Herriaren errepresioak duen neurria», komunikabideen itxierak eta kazetarien tortura salaketak eta espetxeratzeak erakusten dutela aipatu dute. Gogora ekarri nahi izan dituzte *Egin* egunkariako langile ohiak, egun espetxean aurkitzen direnak. «Gaztesarearen operazioa ere zabalik aurkitzen dela», gogorarazi dute.

Ekimena eta Kontseilua

Bai Euskal Herriari ekimenak batesa agertu die auzipetuei, Bilboko manifestaziora joateko deia egite-

arekin batera. Espainiako justizia ere salatu du Ekimenak: «Azken zazpi urteetan milaka arrazoi entzun ditugu *Egunkaria*ren alde. Baina halere espainiarren auzitegi nazionalak berriro, bost euskal herritar epaituko ditu Madrilén. Bada garaia, euskal herritar guztiok ohartu gaitezen, espainiar auzitegiek ez diotela arrazoiari men egiten, ez behintzat logikaren eta justiziaren arrazoiari».

Kontseiluko zuzendaritza osoak ere *Egunkaria*-ren alde egingo den manifestaziora joateko deialdia egin du.

Donostian atzo egindako agerraldian, Kontseiluko idazkari nagusia den Xabier Mendigurenekin batera, Koldo Tellitu (Euskal Herriko Ikastolak), Joanmari Larrarte (EKT), Jon Jaka (Elkar), Unai Larreategi (EHE), Sebastien Castet (Euskal Konfederazioa), Leire Muxika (Emun) Aritz Zerain (Bertsozale Elkarte) eta Aurrene Urrusolo (AEK) egon ziren.



'Gipuzkoan zehar' liburua aurkeztu zuen atzo Patxi Azpiroztek Altzon. I. GARZIA

Jakin-mina asetzeko egitarau oparoa osatu dute Altzon

A. IMAZ

Altzoko Udalak, Kultur Batzordeak, Elordi Elkarteak eta Loatzo Musika Eskolak XIII. Olentzerotan *Jakinmin*ez ekimena antolatuta dute.

Lehen ekitaldia atzoburutu zen. Patxi Azpiroztek hitzaldia eskaini zuen eta bertan berak eginiko Gi-

puzkoan zehar liburua aurkeztu zuen.

'Izango al gara euskaldun?'

Galdera honi erantzuna ematen saiatuko dira gaur Jon Sarasua, Emeterio Zaldibia eta Sagrario Aleman. Mahai ingurua 19:30ean hasiko da udaletxean.

» EGITARAUA

Gaur, abenduak 17

■ 19:30ean. Mahai-ingurua udaletxean: *Izango al gara euskaldun? Zergatik?* Parte hartzaileak: Sagrario Aleman, Jon Sarasua eta Emeterio Zaldibia.

Bihar, abenduak 18

■ 18:00etan. Loatzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia elizan.

Etzi, abenduak 19

■ 16:00etan. Altzo Azpiko Errotaria bisita.

■ 18:30ean. Hitz aspertua udaletxean: *Bertsolariaren Bide(zid)or*etan. Parte hartzaileak: Sustrai Colina, Imanol Lazkano eta Ainhoa Agirreazaldegia.

■ 21:00etan. Herri afaria.

■ Ondoren. Bertso saioa.

Laburrak

Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldiak

MUSIKA ■ Loatzo musika eskolako ikasleak kontzertuak eskaintzen ari dira Eguberrien atarian. Aste honetan eta hurrengoan izango dira kontzertuak. Bihar, 18:00etan, lrurako musika eskolako aretoan izango da. Etzi, 18:00etan ere, Altzoko elizan izango da saioa.

Eraso sexualagatik salatu eta drogagatik atxilotu

TOLOSA ■ Ertzaintzak 27 kilo haxi eta 400 gramo kokaina topatu ditu Tolosako etxebizitza batean, emakume batek salatutako eraso sexuala ikertzen ari zirela. Gizonak bat atxilotu dute droga trafikotako delitua leporatuta. Ertzaintzak ikertzen jarraitzen du.

Bihar plastikozko poltsarik gabeko eguna izango da

VILLABONA ■ Udalak bihar plastikozko poltsarik gabeko eguna antolatuta du. Helburua herriaren kontsumitzen diren plastikozko poltsak murriztea da. Horregatik, telazko poltsak erabiltzea gomendatu dute. Horrelakorik ez duenak, goizetik, okindegetan izango ditu.



① Erosketa balea


Ixabel oinetakoak dendan gastatzeko 100 € ko balea



lurre auzoa 16
943 670 277

② Haur literatur liburu sorta

Ibaizabal argitaletxearen eskutik, 4 haur literatur liburu osaturiko sorta



③ Diskoa

Ken Zazpi taldearen "Ken Zazpi urte zuzenean" 2 CD-DVD, bi harpidedunentzat



④ HITZA materiala

HITZAren material sorta ederra




Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

elkar

NIK ZURI
ZUK NIRI
KULTURA
OPARI 


www.elkar.com



Merkatu Txikia igandera arte

ELKARTASUNA • Urtero bezala, Merkatu Txikia antolatu du Ibarrik Misio Taldeak, parrokiako lokalean. Denetarik topa daiteke bertan: osagarriak, bitxiak, jostailuak, arro-pa, liburuak... Batzuk bigarren eskukoak

dira, berriak besteak. Igandera arte dago zabalik. Monbai (India), Aldea Suyapa (Honduras), Baba eta Santa Rosako (Ekuador) garapenerako proiektu desberdinerako bideratuko dute bertan bildutako dirua. **N. LATABURU**



Jendetza liburu aurkezpenean

ERLUIJOA • Pleno aretoa txiki geratu zen herenegun iluntzean Emeterio Sorazuren azken liburuaren aurkezpenean. Joxe Mari Garmendia misiolari ibartarrak apaiz zerbitzuan orain arte egin duen ibilbidea jaso du Sora-

zuk *Joxe Mari Garmendia Ezeiza: Fedea eta bizitza bertsotan 1971-2009* liburuan. Sorazuk berak ere hitz egin zuen aurkezpenean, Tomas Ugaldeberre eta Joxe Mari Garmendia protagonistarekin batera. **N. LATABURU**

«Herriko beharretara egokitzen den Hiri Antolamendu plana» exijitu dute

NOELIA LATABURU

Ibarrako udal hautetsi independentistek Hiri Antolamendurako Plan Orokorren inguruan jardun zuten, herenegun, Udalak berri ere hau martxan jartzeko asmoa agertu duela eta. Euren ustez, «Ibarraren beharretara egokitu-riko Hiri Antolamendu Plan bat behar dugu, bertako beharrak eta eskualdearekiko harremanak aseko dituen, baina oinarri-oinarrian bertan bizi direnek eztabaidatu behar dute zein eredu nahi duten».

Prozesuari errepasoa

Udalak, pasa den maiatzaren 7an, ArkiGest Estudioa enpresa hautatu zuen Plan Orokorra idatziko zuen talde bezala. Talde honek bi aukera aurkeztu zituen. Batetik, hutsetik hasia, ibartarren artean ikerketa eginez, jarduera ekonomikoa, ekipamenduak... aztertuz, horrela «Ibarrako errealitatea hobeto ezagutu ahal izateko». Eta

bestetik, lehendik egin zen aurre-rapena baliatzea. Udalak bigarren hau aukeratu zuen. Hautetsi independentistek salatu zuten, «duela 4-6 urteko planean ez zegoen adostasunik, baina Udalak bizkarra eman dio honi eta orduan zeuden desberdintasunak ez direla egun ematen erabaki du».

Parte-hartze «baztertzaila»

Pasa den urriaren 24an, Udalbatzak Arauen berrikuspenaren irizpideak eta helburuak berretsi zituen, ingurugiro organoari aurre-tiazko kontsulta eginez eta herritarren parte-hartzerako programa onartuz.

Hala, duela aste batzuk herritarren parte-hartzea deituriko prozesuari ekin zion Udalak. Hala ere, hautetsi independentistek «garrantzi handia duen talde batzuk kanpoan utzi» dituztela salatu zuten. Tartean, «Gaztetxea, HerriKolare eta ezker abertzalea» ai-



Hautetsi independentistak, herenegun, Ibarrako planoaren aurrean. **N. LATABURU**

patu dituzte. «Zergatik, ez al dugu eskubiderik?», galdetu dute. Jakin dutenez, «parte-hartze bileratara ez da jende asko joaten eta agertzen direnek ez dakite zertaz hitz egingo den; ezin izan oso emankorrak», beraz.

Hautetsi independentisten proposamenak

Egoki jarduteko eurek aurrera eramango litzuketen proposamenak aurkeztu zituzten hautetsi in-

dependentistek. Lehenik, «aurre-rapen agiria hutsetik hasi» beharko litzatekeela iritziz diote, «egungo Ibarraren errealitatek abiatuta». Horretarako herritarren parte-hartzea «ezinbestekotzat» jotzen duten. Halaber, ideia eta ekarpen guztiak jaso ondoren, «aurre-rapena idatzi eta berau publiko» egin beharko litzateke. Azkenik, herri galdetara proposatu dute hautetsi independentistek, «erreferendun bitartez».

Laburrak

13 kirolari eta bi kirol talde omenduko dituzte gaur

IBARRA • Ibarrako hainbat kirolari omenduko dituzte gaur, Kirol As-tearen harira. Udaletxeko Batzar Aretoa izango da ekitaldia, 20:00etan, 13 kirolari eta bi talde-tako ordezkariak elkartzeko dira. Hauek izango dira omenduak: Jon Altuna, Jon Ander Karrera, David Prados, Lauburu taldeko jubenilak, Xabier Fernandez, Ambrosio Ibarzabal, Irati Ozaita, Maitane Garmendia, Olatz Aldalur, Emakume-en batela, Saioa Sorondo, Laura Angulo, Jexumari Mujika, Carlos Peña eta Aitor Gartziaarena.

Galtzakomik Lehiaketako lanak ikusgai Kultur Etxean

IBARRA • Galtzaundik eta Ibarrako Udalak antolatutako Galtzakomik Lehiaketan parte hartu zuten marrazkigile guztien lanak ikusgai daude aste honetan Benito Izagire kultur etxean. Irabazle suertatu ziren lanak ere daude hormetan eskegitik. Bihar izango da hau bisitatu ahal izateko azken eguna.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Duela bi urte Euskal Herriko Wushu-Kung Fu Txapelketa jokatu zen Leitzako Amazabal kiroldegian. A. IMAZ

Wushu-Kung Fu-Taichi ezagutu nahi dituenak Leitzan dauka parada

Kirola » Euskal Herriko Txapelketa ospatuko da hilaren 19an, etzi, Leitzako kiroldegian: Euskal Herriko Wushu-Kung Fu-Taichi Txapelketa. 13:00etara.

ASIER IMAZ

Ekitaldi berezia ospatuko dute hilaren 19an, etzi, Leitzako kiroldegian: Euskal Herriko Wushu-Kung Fu-Taichi Txapelketa.

Antolatzaile lanetan Aurrera Kultur Elkartea eta Wushu-Kung Fu Euskal Federakundea ibili dira. Txapelketa 11:00etan hasiko da eta 13:00etan amaituko dela aurreikusten dute. Ikuskizun «harrigarri» baten aurrean aurkitzen garela ere aipatu dute antolatzaileek.

3 minutuko koreografiak

Leitzan ez da Wushu-Kung Fu borrokarik ikusiko, beste modu bateko Txapelketa antolatu baitute: «Formak epaituko dira hemen. Parte hartzaile bakoitzak 3 minutu inguruko koreografia bat egingo du eta, epaileek mugimendu horiek aztertuko dituzte puntuatu aurretik».

Koreografia guztiak ez dira berdinak izango, eskola edo korrante desberdin asko baitaude: Chen, Shaoli, Wudang... Esan beharrik ez dago bakoitzak bere mugimenduak dituela. Hor kokatu dute antolatzaileek Txapelketaren helburu nagusia: «eskola eta mugimendu asko daudenez, egiten ari den lana ikustea, mantentzea eta hobetzea».

Emakumezkoak nagusi

Euskal Herriko Txapelketan ez da bereizketarik egingo emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Lehenak ordea gehiago izango omen dira: «Leitzako ikastaroan adibidez 14 neska eta mutiko bat ibili dira».

Oro har, parte hartzaileak ehundik gora izatea espero dute antolatzaileek: «Oraindik jendea izena ematen ari da. Azken Txapelketan, Bermeon, 120 lagunek hartu zuten parte».

Datu guztien arabera Leitzan «maila handiko» Euskal Herriko Txapelketa ikusteko aukera egongo da etzi; «izugarritzko ikuskizuna: adin desberdinetan antolatuta, eskuiekin bakarrik, ezpatarekin, makilekin, banaka edo binaka...».

Mendi ibilaldira joan nahi dutenek gaur dute azken aukera

Leitza » 2010eko Federatu Txartela atera nahi dutenek Aurrera Elkartean edukiko dute aukera bihar 19:00etatik 20:00etara.

A. IMAZ

Mendibil Mendi Taldeak bi ekimen jarri ditu martxan. Alde batek mendibilaldira eta bestetik 2010eko Federatu Txartela ateratzeko aukera.

Mendi ibilaldia, igandean

Aurrera Kultur Elkartean babesean, Leitzako Mendi Taldeak ibilaldia antolatu du hilaren 20ean, igandean.

Herriko plazatik 08:30ean irten gozatu daiteke itzulera egiteko.

ko asmoz: Leitza-Beordain-Kornietan-Ireber-Artxulo-Uztarlekua-Iratixabal-Leitza. Antolatzaileen esanetan 4 ordu terdiko ibilaldia izango litzateke.

Gaur da izena emateko azken eguna Astiz eta Maimur liburutegietan. Helbide elektronikoz ere apuntatu daiteke: mendibilaldira@hotmail.com.

Federatu Txartela

2010eko Federatu Txartela atera nahi dutenek bihar Aurrera Elkartean edukiko dute aukera, 19:00etatik 20:00etara. Horretarako NAN zenbakia eta dirua eramane behar da.

Txartela atera aurretik informazioa nahi dutenek ere, Aurrera Elkartera joatea nahikoa izango dute aipatu ordutegian.

Pailazoak eta zinea euskaraz Leitzan

ERREDAKZIOA

Euskarabidearen laguntzarekin, Euskara Zerbitzuak eta Denok Bat guraso elkarrekin antolatuta, hilaren 20ean, igandean, *Olentzero eta oparien ordua* emanen da Leitzako zinean, 17:00etan.

Antolatzaileen esanetan, euskarazko film hau ikusteko sarrera ez da ordaindu behar.

Bihar, Kiki eta Koko eskolan

Film emanaldiaren aurretik, bihar beste ikuskizun batez gozatzeko aukera egonen da Leitzako eskolan. UEMak antolatutako Kultur Elejiraren programazioaren barruan, Kiki eta Koko pailazoek *Txintxilintxin bakea egin* emanaldia eskainiko baitute 15:00etatik aurrera.

Areson bihar, bigarren aukera

ERREDAKZIOA

Gurasoen prestakuntza programa atzo jarri zuten martxan Areson. Ikastaroa 16:00etan hasi eta 17:30ak inguruan amaitu zen udalarekin. Hurrengo bilerak bihar egingo dute, ordu eta leku berean. Guraso Elkarrekin herriarrak bertara gonbidatu ditu.

Ikastaroan honako gaiak aztertuko dituzte: *Komunikazio ereduak, afektu trebetasunak eta trebetasun eraginkorrak abian jartzea, garapen integral baterako behar diren trebetasunak hartzea...*

Jaiotza prestatzeko deialdia

Aurreko urteetan bezala, aurtenez Eguberrietako Jaiotza prestatzeko garaia iritsi zaie aresoarrei. Aurtengoan gainera berrikuntze-



Gurasoen inguruko ikastaroa egiten ari dira Areson. ARESOKO GURASO ELKARTEA

kin dator Jaiotza, orain arteko irudiek gain, Guraso Elkarteko kideek azken hilabeteetan diseinatu eta margotu dituzten irudi berrie-

kin apainduko baitute plaza. Jaiotza jartzeko deialdi zabala egin dute: «Herriko plazan, hilaren 19an, etzi, 15:30ean».

Egunkaria libre!

manifestazio nazionala

Abenduak 19, larunbata
17:00etan Bilboko Autonomia kaletik

munduan libre bizi ahal izateko Egunkaria libre munduan bizi ahal izateko



4°
0°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EURIA
ELURRA
4°
-7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Villabona.** Herria Kantuz egingo dute larunbatean, hilak 19, 12:00etan Berdura plazan.

Zozketa

■ **Anoeta.** Santo Tomas eguneko 40 loteetako zozketa Alkartasun biltokian 18:00etan. Norbaitek joaterik izango ez balu, bazkidearekin bizi den senitartekoren batek jaso dezake saria. Ondoren txistor jatea egingo dute. Edaria norberak eraman behar du.

Zinema

■ **Lekua.** Solo se vive una vez filma Leidorren 19:15ean eta 21:45ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK


■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalarreta, 1.943 67 36 49.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95, 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Zahar berri. **09:00.** Muka. Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kafe t'erdia. **10:30.** On ein! **11:00.** Haurrekin jolasean. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Kickboxing. **12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kafe t'erdia. **14:30.** On ein! **15:00.** Haurrekin jolasean. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Kickboxing. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoako Kultura. **18:30.** EH lau haizetara. **19:00.** Golb tb. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Ikusten. (* 16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko da)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan iritzien erantzukizunik.



Kolore biziko margoak Atxulondon

ZIZURKIL • Kulturaz beteta iritsi da abendua Zizurkilera eta antolatutako ekitaldien artean urtarilaren 8rarte, 16:00etatik 20:00etara, Atxulondo kultur etxean dauden margolanen erakusketa ere nabarmendu be-

har da. Josetxo Irastorzen lanak dira, oso koloretsuak, eta inguruko herriak, baita Zizurkil bera ere, ikusi daitezke eraikin ezagunekin batera. Paisaiak eta animaliek ere badute lekua Irastorzen lanetan. E. MAIZ

A Agurrak



Zorionak 90. urtebetetzean!
Maria Jesus Cornago (Tolosa).
Orain bezain bixkor jarrai dezazula. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Zorionak 90. urtebetetzean!
Amona Dolox (Amezketza).
Zorionak Errementaingo familiaren partetik. Orain bezain bixkor jarrai dezazula.



Astelehena
abendua 21
12:00etan



MARTXELO
OTAMENDI
kazetariarekin
elkarriketa digitala

Bidali zure galdera
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
helbidera

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldeko-hitza.info

webgunean

Eskuratu
elb ko Bertsolari Txapelketa
Nagusiko DVDa
berria rekin

gogoratu noiznahi historia egin duen txapelketa

txapelketako bertso hautatuak 2 DVDtan

ABENDUAREN **24**TIK AURRERA,
zure kioskoan

berria + **12 €**

Baduzu zer oparitu
Gabon hauetan!

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria